

ako ikastetxeak ere izan ditu aztergai, alegia, bazterreko bi euskalkietara zuzendu du ikerketa, hain zuzen ere euskara batutik gehien aldentzen diren horietara, euskara batua/ euskalkia uztartzean arazo gehien ekar dezaketetara.

Alor honetan galdeketaren antolaketa zehazki azaltzen du eta baita galdeketak sortzeko oinarri izan dituen irizpideak ere. Azterketaren emaitzak ere III. atalean agertzen dira, galderaz galdera eta ikastetxez ikastetxe.

Azkenean, IV. atalean bizkaieraren irakaskuntzarako oinarrizko curriculum-aren diseinua eta edukien multzoa aztertzen du, alegia, idatzizko eta ahozko komunikazioaren papera eta baita irakurketaren betebeharra ere. Azkenean, estrategien diseinua egiten du eta baita orientazio orokorrak eta ebaluaziorako orientabideak ere.

Egileak ez du alde praktikoa baztertzen, eta, hori dela eta, pragmatikari begiraturik badira aholku batzuk, berauetan azpimarratzen da zein alde dagoen sei edo zortzi urteko haur baten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan mugitzen duen beste baten artean.

Egilearen ondorio bezala esan dezakegu apustua dela etxetik euskara dakitenentzat atxikitze-eredua erabiltzea eta ez murgiltze-ereduaren alde egitea. Goikoetxearen tesia lekuan lekuko euskararekin datorren ikaslearen gainean eraikitzen baita. Zehatzago oraindik: ondorioen artean, hauxe nabarmentzen da, atxikitze-eredukoekin euskara batua euskalkiaren –etxetik dakartenaren– arartekotasunez ikastea dela egoki, beraz, etxetik euskalkia –bizkaiera, zuberera...– dakitenentzat atxikitze-eredua dela irakasbide zuzena.

VI. atalean ondorioak laburbiltzen ditu, VII.ean bibliografia dakar eta azkenik, Eranskin gisa erabilitako galdeketak atalka sailkatuak. Honenbestez, ekarpen interesgarri baten aurrean gaude, irakasleentzat bereziki lagungarria, sakonki aztertu baitu irakaskuntzak daukan erronka eta hainbat aterabide ere proposatzen dituelako.

*Orreaga Ibarra*



**GUTIERREZ, Arantza**

**Euskal irratigintzaren historia**

Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 2002. – 215 p. :  
il. ; 24 cm. – 84-8438-031-9

### **Irakurri beharreko liburu baten irradi-kronika**

Agian irratigintzak laurogei urte besterik ez dituelako geure artean, liburu honen abiapuntua ez da oso “historikoa”. Irakurtzen hasi ahala, oinak egunerokoan dituen hedabidearen nondik norakoak kontatuko dituela ikusten da. Atzera begiratzen du soilik

gaur-gaurkoak diren irratzi-sistemaren oinarriak nola jarri ziren mahaigaineratzeko. Horregatik, eta irakurterraza eta informazioz ondo hornitua dagoelako, Euskal Herriko hedabideen panorama hobeto ezagutzeko ezinbesteko liburuen artean paratu da, dagoeneko.

1924an, irratizale elkarteak sortu eta handik berehala emisorak eratzen eta emititzen hasi zirela esanez ekiten dio Gutierrezek liburuaren kontakizunari. Ardatz kronologikoak pisu handia du liburuaren lehen zatian eta oso komenigarria da non geunden kokatzeko. Aldi berean, Estatu espainiarraren zein frantziarraren erreferentzialtasunak asko markatzen du eremu geopolitiko horietan zer gertatzen zen eta legedia, hedabidearen egituraketa enpresariala eta bilakaera teknologikoa azaltzeko orduan.

Baina, liburuaren erdi aldera iritsita, izenburura berriro jo daiteke ikusteko euskal irratigintzaren historia egiten duen arren liburu honek euskarazkoari egiten diola kasu bereziki. Lehen ataletan, euskarak irratigintzaren sorreran izan zuen lekuari buruzko apunte gisako aipamenak egiten baditu ere, gero, kontakizunean aurrera egiten den neurrian, ehunzte argumentalean zentrala den hizkuntzaren gaia agertzen da.

Historia laburra eta eguneroko zabala eta bizia duen hedabidea dugu irratia eta horregatik beste liburuetan baino hemeroteke eta ikerketa pertsonalean mamitu du Arantza Gutierrezek argitalpen hau.

Hiru ardatz beraz, kronologikoa eta geopolitikoa nagusiago liburuaren lehen ataletan eta gero, euskararen presentzia aitzakia gisa hartuta, irratigintza eta komunikazio-eremuaren osakeran medio honek jokatu duen bilakaeraz eta gaur egun daukan pisuaz aritzeko, erditik aurrerako ataletan.

Frantziar irratigintzaren birrarauketa eta Francoren heriotzak ekarritako aldaketetan kokatu daiteke irratia aro berria. Ordukoak dira irratigintza publikoaren eta pribatuaren arteko lehia, deszentralizazio eta emisio-eremu desberdinetarako emandegien sorrera, programa eskaintzaren bilakaera, hainbat aldaketa teknologikoen aplikazioa eta, bereziki, legeen esanetatik libre arituko ziren irratzi-emandegien jaiotza.

Azken hauei dedikatzen die Gutierrezek bere liburuaren tarterik gaurkotuena eta biziena, eta orain arte egin diren argitalpen bakanetatik originalena, esan beharko genuke.

Aztertu gabeko eremuan, kanpo-lanean dabilen ikerlariak mapa zirriboratu eta mugariak ezarri behar izaten ditu, zeregin horretan ere aritu da liburu honen egilea. Izan ere, 80. hamarkadan loratu ziren irratizko argiak izendatzeko ere arazoak izaten dira sarritan. Esatareko, irratizko askeak: "...baimenik eskatu gabe, irratizko maiztasunak libreki okupatzeko eskubidea aldarrikatzen duten emisorak, eta beren helburuetariko bat bide ofizialetan tokirik ez duen komunikazioa ahalbidetzea dutenak, herritarren parte-hartze zuzena bultzatu." (99 orr.). Liburu honetan, beraz, azterketa lanak gehienetan ekartzen duen taxutze eta zedarriztatze kontzeptuala ere ekarri du. Kuantitatiboki zein kualitatiboki hain garrantzitsua izan den irratizko askeen kasuan zortzi elementuen inguruan egiten da definizioa. Hauek dira aipaturiko lerroetako izenburuak eta, bide batez, irratizko askeen abiapuntua, ibilbidea eta helmugak ondoan adieratzen duten osagarriak:

- Kontrainformatzea, informazio ofizialari aurre egiteko
- Subjektibotasuna eta zintzotasuna, objektiboasunaren mitoaren aurrean
- Kultura alternatiboaren suspertzea
- Mintzaira berria erabiltzea
- Entzuleen parte-hartzea bultzatzea
- Herri-taldeekiko elkarlana
- Legez kanpoko emanaldiak
- Katerik gabeko finantziabidea

Estatu espainiar eta frantziar zein autonomi erkidego bietako administrazioek egi-ten duten maiztasunen banaketak, Euskadi Irratiaren sorrerak eta aipatu ditugun irrati askeen jaiotzak, orain-oraingo irratigintaren azterketan kokatzen gaitu. Gaurkotasu-naz, eta neurri handi batean gerokoaz ere hain lotuta dagoen, liburuan “historia” hitzak izenburuan pisua galtzen duela dirudi, azterlanaren onerako.

Izan ere, mende bien arteko urte horiek irratigintzaren etorkizuneko bidea markatu dezakete. Hori da, hain zuzen ere, egileari eskatu behar zaion konpromisoa: aldaketa teknologikoan burubelarri sartuta dagoen medioaren jarraipena egiten segi dezala tarte honetan, prospektiba lana egiteko lotsarik ez edukitzea. Aldaketa garaie-tan erizpideak eta erreferentzia berriak oso beharrezkoak izaten direlako.

“Euskal irratigintzaren historia” titulu gisa daraman liburuaren azken orrialdetan mami handikoak eta zeharo interesgarriak diren osagarri batzuk ageri dira. Bertan, besteak beste, irratigintzaren kronologia, entzungai ditugun irrati-estazioen zerrenda, herrialdez herrialdeko dialaren panorama eta web orri lagungarri batzuen zerrenda aurkitu daitezke.

Hor, liburuaren gehigarri baino osagarri funtsezkoak diren orrialde horietan, faltan botatzen dira agian, audientzia datuak, irrati-eskaintzaren azterketa eta publizitatearen zein beste finantziazio-bideei buruzkoa informazioa. Hau da, irrati-kontsumoaren nondik norakoak, zenbaterainokoa den emandegi bakoitzak lortzen duen zatia eta hor zelan kokatzen diren euskaraz aritzen diren irratia. Aldi berean, kontsumoaren oina-rrian dagoen eskaintza nolakoa den eta zeintzuk genero eta programa formato dau-den lehen eta gaur egungo irratigintzaren erakuslehioan jakitea oso interesgarria da. Azkenik, irratigintzaren diru-iturriak zeintzuk diren eta nolako bilakaera eduki duten mahaigaineratuz gero, gaurko irrati-sistemaren egoera hobeto ulertzeko balio dezake.

Esandakoa, egun-egungo irratiaz gehiago jakiteko, momentu batez atzokoari begi-ratu eta etorkizuneko norabidea markatzeko baliogarria den horietariko liburua da Arantza Gutierrezen hau. Ezinbestekoa.

*Edorta Arana Arrieta*



**HERRERO MATÉ, Guillermo**

**Liberalismo y Milicia Nacional en Pamplona durante el siglo XIX**

Pamplona: Universidad Pública de Navarra, = Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2003. – 502 p. ; 24 cm. – ISBN: 84-9769-013-3.

Un reciente estudio sobre la historiografía navarra de los últimos veinte años, realizado por Pilar Erdozain y Fernando Mikelarena, confirmaba la preferencia entre los historiadores locales por los períodos 1780-1841, o de transición del Antiguo al